

## aditza badut

PREST OTE SINDIKATUAK?

Xabier Lasa

## 'El Radiador'

Nazka sortzen du *Rosamaniaren* kontura txolinduta dabilen kazetaritza espainiarrak. Histerismo kolektibo honen kontrako antidoto irribarretsu bakanak, barru hustutzaileak, maltzurak eta mendekatzaileak, J.A. Abellanen kirol saioko *El Radiador* tarte lotsagabeak eragiten dizkit. Han, Donostiako David Minerrek, Irureta eta Toshacken ahotsak imitatzen ditu batik bat; Fernando Echeverria itsua, berriz, De La Morena eta Garcia berriak baino errealagoa da. Asteazkenean, Camacho eta Juan Carlos monarkaren ahotsak jarri, eta Rosari bi dei

Francoz geroztikako erronka historikorik latzena da E-20ak UGT eta CCOO sindikatuei ezarri die-na. *Operacion Triunfo*, ospetsuen txutxumutxu eta futbolarekin anestesia balu bezala dagoen gizarte mobilizatu behar du. Lan erreformak irenstearen truk funtzionario otzan bihurtu diren sindikatu sinpatiko horiek ere, atzo arte, *Spain is living a celebration* kantatu dute abesbatzean. Orain, ordea, sekulakoa izango da komunikabide nagusiek datozen egunetan emango dien jipoia. Agian, Prisa-ko zenbait sektorek bidaliko diete salbamendu jaka, ito ez daitezten.

egin zizkioten. Zein baino zein surrealistagoak. Aurrez ere Garciaren bikoitzak Nuñez eta Van Gaal *kuleei* egini-ko solasak ez ziren atzean geratzen. Orduan *butanitoa* zeharo ozpindu zen, eta epaitegietara eramandako parodia, nortasuna lapurtu ziotelakoan (nekez egingo du Juan Carlosek halakorik, nortasuna behar delako lehen-dabizi). Egiak, harrigarria da Garcia bezalako mikroa-halguztidun batek izan dezakeen itxuraldaketa. Futbole-roen irudimen kolektiboan, ukiezin eta beldurgarri izate-tik, egun, epaitegietan auziz auzi dabilen pertsonai gizajo errukigarri bihurtzeraino. Herenegun, kazetari ausart bakarra izan zelako PPK Real Madrili eskainitako faborezko tratua —milioikakoa— salatzen.

## Etengabeko aldaketak definizio garaian

**TELEBISTA DIGITALA EUROPAN.** Carmina Crusafon kataluniarra azkeneko hilabeteetako joerak aztertzen dabil

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

ESANAK

**T**elebistaren munduan aldaketa ugari ari dira gertatzen azkeneko hilabeteetan. Europako herrialde bakoitzean hainbat faktore hartu behar dira kontuan, Carmina Crusafon adituaren arabera, «ezin baita orokortu gertatzen dena eta dena zaku berean sartu». Media Park ikerketa kabinete-ko arduraduna da Crusafon eta Europako merkatuaren joerak ikertzen ari da, hiru hilabete-tero txosten bat eginaz.

Telebista digitala mundu osoan definizio garai batean dagoela uste du adituak eta herrialde bakoitzean garapena modu batean gertatuko dela. Crusafonen azkeneko txostenean ageri denez, futbola eta estreinu-zko filmak Europako ordainezko telebistaren arazo handienetako bat dira. Bestetik, telebista digitalak dimentsio politikoa hartu du leku askotan, eta zenbait operazio oso lotuta doaz eragin politikoei.

Espainiako eta Italiako platafor- ma digitalen bat-egiteaz, berriz, Crusafonek zenbait argibide eta ondorio eman dizkio EGUNKARIARI. «Ordainezko telebistan monopolioa sortzean pluralismoa kolokan jar daiteke, eta informazio iturrien dibertsitatea desagertu egin daiteke. Aditu batzuen arabera, horrek eragin kaltegarriak ekar ditzake edukien mailan», dio Media Parkeko ordezkariak.

**Digitalizazioaren garapena, hainbat elementuren batuketan**

Telebista digitalaren inguruan zalantza ugari daude kontsumitzaileen artean. Horieta-ko bat emisio digitalak jasotzeko deskodetzaile aparatuen da. Crusafonek bere iritzia eman digu

**CARMINA CRUSAFON**  
(Media Park ikerketa gabineteko arduraduna)

«Erabaki eta bategite batzuekin pluralismoa eta informazio iturrien dibertsitatea kolokan jar daitezke»

«Telebista digitalaren azterketa askotarikoa egin behar da, ekonomikoa, politikoa eta ohiturena»

«Prezio eta eduki mailan eskaintza interesgarriena duenak lortuko du arrakasta»

gai horren inguruan: «Murdochek Ingalaterran ezarritako joera bati jarraituz deskodetzaileak oparitzen hasi ziren. Baina edozein konpainiarentzat galarak sekulakoa dira. Kontua da ez dela aparatu *standar* bakar bat ezarri Europa osoan. Beste arazo bat prezioarena da, eta kontsumitzaileari oraindik aparatuak atzera botako dio». Ingalaterran apirila hasieratik deskodetzaile merke bat saltzen ari dira (150 euro), hobe-kuntza batekin ordainezko eskaintza gaineratzeko aukera ematen duena. «Europako Batasunak planen bat egin behar-ko luke aparatu digitalak etxe-tan zabaltzeko, herritarrek oraindik ez baitute abantaila gehiegi ikusten telebista digita-lean».

REMY DE LA MAUVINIÈRE / AP  
Jean-Marie Messier Vivendi hedabide taldeko presidentea.

Telebista digitalaren azterketa askotarikoa egin behar dela uste du Crusafonek, ekonomikoa, politikoa, soziala eta ohiturena. Etengabeko aldaketak ari direla gertatzen dio adituak, eta gaur esandakoa bertan behera utz dezaketela zenbait erabakik.

Hainbat teknologiarren gaitetik, helburua kontsumitzaileengana iristea da, eta horretan indarrak jartzea garrantzitsua dela uste du Media Park taldeko ikertzaileak. «Kontsumitzaileari teknologiarren inguruko hainbeste informazio zailtasun sentsazioa ematen dio. Ikus-entzuleari prezio eta eduki mailan eskaintza erakargarriena ematen dionak lortuko du amaieran arrakasta».

Erresuma Batuan teknologiarren inguruko eztabaidak gandi-

tuak daudela dio Crusafonek, eta diskurtsoa ezberdina dela. «Edukiez, kontsumitzaileengana iristea hitz egiten da. Hartzaileari berdin zaio seinalea nola jasoko duen. Ikus-entzuleak nahi duen eskaintza da benetan garrantzitsua», dio Crusafonek.

Lurreko telebista digitalaren lehen esperientziak porrot egin du Espainian (Quiero) eta Ingalaterran (ITV); Suedian kinka larri-ri dago. Plataforma horiek garatzeko unea bizkorregi iritsi dela uste du Crusafonek, baina arazoa negozio eremuan asmatu ez delako izan da. «Lurreko telebista digitalak etorkizuna izan dezake, baina koordinatu egin behar dira operadoreak, banatzaileak, gobernuak eta merkatua».

HERRIALDEAK

## Europako lau herrialde nagusien egoera

Martxotik maiatzaren 15a arte ordainezko telebistak Europako merkatuan izan dituen mugimenduak aztertu ditu Carmina Crusafonek:

**ALEMANIA.** Kirch taldearen zorraren ondorioz bi esku-mendeko enpresa kaudimengabe deklaratu behar izan dituzte: KirchMedia eta KirchPay TV. Premiere katea kinka larri dago (kableak, berriz, zabalkuntza handia du). Marko mediatikoak eragina izan dezake iraileko hauteskundeetan.

**FRANTZIA.** Pierre Lecure Canal Pluseko presidente kargutik kentzeak eztabaida handia sortu zuen. Vivendi Universal taldearen akzioak %40 jaitsi dira urtea hasi zene- tik, eta Jean-Marie Messierrek erabaki asko hartu behar izan ditu (adibidez, Thomson Multimediarekin akordio batera heldu da). Kable operadoreen egoera kez- kagarria da.

**ERRESUMA BATUA.** ITV Digital ixterakoan gobernuari zalantza sortu zaizkio digitalizazioaren aldeko apustuan. Hala ere, ekainaren 12rako lurreko telebista digitalaren lizentzia berri bat eskainiko du. Kableak une zaila bizi du.

**ITALIA.** Erakundeek Strea eta Telepiuren arteko bategitea onartu dute, baldintza batzuekin. Vivendi taldearen ustez, baldintzak gehiegizko-ak dira eta operazioa oraindik ez dago erabakita.